

berriak Triforio-tik



araba
álava

Santa Mariaren argi berria

Azken asteotan Santa Maria bisitatu duen edonork ikusi du tenpluaren barnea ezberdin dagoela. Horren arrazoa da nabean ezarri den argiztapen berria. Endesa fundazioaren laguntzari esker izan da posible, programā bat abiatu baitu kultura eta artearen alderdi ezberdinak sustatzeko, berreskuratzeko eta kontserbatzeko. Eraginkortasun energetikoko teknika berritzaileenak erabiltzen ditu ezarritako argiztapen-sistema berriak. Eraikina monumentu-elementu gisa erakusten du; ondasun higigarriak, berriz, behaketa objektu gisa.

Eraikinaren argiztapen arkitektoniko eta funtzionala katedralaren zutabeetan kokatutako **hemezortzi ganderailuz** osatuta dago. Harriari iltzatutako letoizko tutuez egindako eraztunek osatzen dituzte ganderailuok, eta argi-zuzien itxura duten lau luminaria dauzka bakoitzak. Luminaria horiek, halaber, bi argi-iturri dauzkate. Bat gora begira dago eta indartsuagoa da, kristal zurizko tulipak dituen kandela gisa tratatua dago eta. Bestea, berriz, behera begira, itsualdiaren aurkako lurrera. Goikoek argizatzen dute arkitektura-gunea oro har (nabeetako gangak, batez ere), eta zutabeetako eskultura-xehetasunak hautematea ahalbidetzen dute. Behekoek, berriz, igarotzeko argiztapena ematen dute, katedralaren lurzorua bakarrik argizatzen baitute.

Artelanak argiztatzeko sistema

Gainera, tenpluko artelanak argiztatzeko sistema ezarri da higiezinentzako (eskulturak, armariak eta hilobiak) eta higigarrientzako (koadroak, erretaulak eta taillak). **Errail elektrifikatuen gainean** jarritako fokuekin dago antolatuta. Edozein norabidera begira egon daitezke, eta errailaren edozein gunetan jarri, argiztapen-angelu onena lortzeko.

Luminarien lanpara guztiak dira LED motakoak, kontsumo baxukoak eta kolore-errendimendu onekoak; eraikinaren arkitekturari eta erakusteko objektuen kalitateari egokituta daude.

Instalatu diren argiztapen-sistemek argiztapen orokorrerako 2014an tenpluaren gangan instalatutako bost lanpara zintzilikagarri handiak osatzea dute helburu.





Azaroak 10

RAFA MENDIALDUA OMENTZEKO KONTZERTUA

Katedraleko kaperaren maisua hil zenetik urtebete igaro denez, tenpluak kontzertu batekin omenduko du Rafael Mendialdua. Aramaion jaio zen 1938an eta apaiz egin zen 1963an. Bere bizitzan zehar sekulako ikerlana egin zuen, Santa Maria katedraleko artxibo eta maisuak oinarri nagusi izanda. Kontzertua azaroaren 10ean izango da erdiko nabean, 20:00etan. Sarrera librea izango da lekua bete arte. Vicente Goikoetxea, Enol, Lautada, Manuel Iradier koroek eta Floren Unzueta organistak eskainiko dute emanaldia. Vicente Goikoetxea, Luis Aramburu eta Alfredo Donnayren lanak interpretatuko dituzte, besteak beste.

Enerpat proiektua

Santa Maria Katedrala Fundazioko teknikariek Enerpat proiektuaren bileran hartuko dute parte azaroaren 22an eta 23an Europa Biltzar Jauregian. Vitoria-Gasteizko Udalak antolatua, hitzorduak, ondarea mantentzeko asmotan, hirigune historikoetan dauden eraikinak zaharberritzeko konponbide energetikoki eraginkorrak bilatzea du helburu, aipatutako proiektu europarraren baitan. Arabako hiriburuaz gain, Cahors (Frantzia) eta Porto (Portugal) hiriek ere hartuko dute parte. Lanak Vitoria-Gasteizko Hedegilea kaleko 119. zenbakiko eraikinean izango dira.



Santa Maria Aintzaren ataria zaharberritze lanetan

Santiago de Compostelako eta Santa Maria katedralek elkarren antza asko dute, zaharberritze lanei dagokienez, behintzat. Azaroaren 21, 22 eta 23an, tenplu galiziarrari buruzko jardunaldi tekniko batzuk antolatuko ditu Kultura eta Kirol Ministerioak. Aintzaren ataria izango dute hizpide, hain zuzen ere. Espainiako Ondare Kulturalaren Institutuarekin (IPCE) batera koordinatu dira jardunaldiak, eta 2016an antolatu zirenei amaiera ematen diete, bertan zaharberritzearen aurreko ikerketa aztertu baitzen.

Behin lana burututa, erabilitako lan-metodologia aurkeztuko da harrizko materialak eta apainketa polikromatuak zaharberritzerakoan. Era berean, prozesuan lortutako datu berriak ezagutaraziko dira. Horie esker, posible izan da polikromia ikertzea, eta ondare kulturalaren eta Europako erromanikoaren lan ospetsu hau sakontasunez aztertzea. Santa Mariaren esperientzia ere presente egongo da jardunaldi hauetan hitzaldi baten bidez: 'El registro de la intervención en el Pórtico de la Gloria, un proceso abierto con el monumento en el centro' (Aintzaren portikoan egindako lanen erregistroa; monumentua erdigunetzat duen prozesu irekia).



Catedral-Fundación Barrié Programa /
Catedral de Santiago Fundazioa